

Alegazioak

MUTRIKUKO UDALA

Bide alternatiboa hobetzea.

GI-638 errepidea itxita dagoen bitartean zabalduko bide alternatiboak 4,5 metroko zabalera edukitzea, eguneroko auto gurutzaketak eta larrialdietako ibilgailuenak ahalbidetzeko.

Jarduera ekonomikoak. Errepidea erabat itxita dagoen hila-beteetan kaltetuak izango diren jarduera ekonomikoetarako seinaleztapen egokia egitea, bezeroen joan-etorria bermatzeko.

Arrainbideko bihurgunea. GI-3230 errepidetik, Arrain Bidetik, igotzeko nahiz jaisteko puntuan dagoen bihurguneko ikusgaitasuna hobetzea.

Bidegurutzeen ikusgarritasuna. Transferentzia guneko bidegurutzean eta Arbe hotelerantzkoan ikusgaitasuna areagotzea, bidea hobetu behar dela aprobe-txatuz.

Autobus geltokia. Transferentzia gunean eskaripeko autobus geltokia jartzea.

EH BILDU

Bizikleta bidea. Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planak zehazten duen bezala, bizikletentzako bidea egitea hobekuntza lanekin batera.

Zerbitzuak. Puntu beltzak ekiditeko argiteria ezartzea oinez-

koentzako ibilbide osoan. Oinezkoen ibilbidea markatzea eta eserlekuak dituzten atsedenguneak jartzea.

Larangako auzotarrak. Auzotik Mutrikuraino irteera bat egitea, Txorixatik norabide batean jaitsita, 100 metro bide publikoan eginaz. Mutrikutik auzora igotzeko, berriz, Areitzietatik igota, kanpinetik, bide pribatutik Txorixaraino.

Zirkulazioa. Arrainbidetik GI-2330 bidean (Galbaixoko bidea) segurtasuna bermatzeko baliabideak jartzea, zirkulazio guztia bertatik igaroko delako. GI-638 errepidea itxita egongo den hila-beteetan Mutrikutik Sasiolarako biribilgunean, karga handi eta luzeko kamioientzako eta autobusentzako debekua ezartzea.

Errepidea. Lanek irauten duten bitartean, Arbe hotelera eta Laranga auzorako sarrerak itxita ez egoteko norabide bat zabalik egotea, semaforo bidez araututa, esaterako.

Sarrera-irteerak. Arbe hoteliko eta Laranga auzoko sarrera-irteerak arriskutsuak direla eta, tunelaren eta bihurgunearen konponketekin batera abiadura murrizteko iragarki eraginkorrak jartzea.

Ekonomia. Hobekuntza lanen ondorioz kaltetzen diren auzoko jarduera ekonomikoak era justuan orekatzea.

Autobus geltokia. Larangan autobus geralekua jartzea.

NATUR TALDEA ETA B+I

Kontserbazioa. Bide alternatiboak gaitzerakoan ingurua ondo zaintzea Astigarribian.

Oinarria. Lanak egiteko Deba Ibaiaren Estuarioaren Plan Estrategikoa ez erabiltzea oinarritzat, Mutrikuko Udalean ez baitu inolako onarpenik jaso.

Ondarbeltz. Hondartzan egin beharreko horma berria jatorrizkoaren berdina izatea.

Estimazioak. Zirkulazioaren inguruan egindako neurketak ez direla izan egokiak, ez lekuari dagokionez ezta denborari dagokionean ere.

Paisaia. Errepideko hobekuntzak ingurua errespetatuz egitea, kontuan hartuta Mutrikuk turismoaren alde egindako apustua eta Geoparkea.

Ipitxarri. Egin beharreko erauzketek eta oinezkoentzako bideak Ipitxarri ahalik eta gutxien kaltetzea.

Landaredia. *Woowardia radicans* landareak adituek landatzea, legez kanpo egindako lan batzuek suntsitu egin baitzuten.

Animalientzako pasabidea. Oinezkoen bidearen alboan egon behar den hesiak errepidera aterra daitezkeen animaliek ihes egiteko pasabidea edukitzea.

Errepidea. Itsasorantz bideratzea, erauzketak ekiditeko.

Erauzketak. Erauztutako materialak Larangako zelai batean pilatzea baino, Olatz harrobian pilatzea.

Bidegorria. Nahiz eta tarte batzuetan zaila izan, Mutrikuko Udalean onartu bezala bidegorri bat egitea.

Geltokia. Bi noranzkoetan autobus geltokia egotea transferentzia gunen parean, eta Larangatik datozen ibilgailuentzako integrazio erreil bat egitea, errepidera sartzea errazteko.

Auzotarrak. Ipitxarri bihurgunea eta Alkoleako tunela une berean ez egiteak lanak egiteko aukera enpresa gehiagok edukitzea ekar lezake. Bestetik, auzotarrekiko begirune berezia edukitzea eskatzen da. Lanetan parte hartzen duten azpikontratutako langile guztiek Gipuzkoako eraikuntzako hitzarmena betetzen dutela bermatzea eskatzen da.

Phalacrocorax aristotelis. Hezati hori ohikoa da gunen horretan, eta bertan habiak jartzeko aukera dagoela ikusita, ahalik eta eragozpen gutxien sortzea.

LARANGAKO AUZOTARRAK

Sarrera. Arrainbide izenez ezagutzen den bidea auzora sartzeko bakarrik erabiltzea.

Ikusgaitasuna. Larangarako sarbidean ikusgarritasuna hobetzea. Sartzeko norabide bat egotea edo biribilgunea egitea.

Irteera bideak. Debarantz Olmedo zalditegitik Bustiñaga baserrian barrena eta Arbe hoteletik gora doan errepidetik. Mutrikuruntz, San Juanetik Aitzeta kanpingera, San Juanetik Mediku-Eneako bidera eta San Juanetik Galbaixoko errepideruntz.

Denborak. Lanak zatika egitea.

Arrainbide. Aurreko konponbideak kontuan hartu ezean, Arrainbide bideak bi noranzko edukitzea.

Hobekuntzak. Ikusgaitasuna areagotzea puntu txarretan, zorua konpontzea, bide bazterrak garbitzea eta ibilgailuak gurtzatzeko zabalgunek egitea.

Errail bat zabalik. Errepidea guztiz itxita dagoenean, transferentzia gunearan eta Arbe hotelaren artean norabide bat zabalik egotea.

Abiadura. Errepideko zoru berriak abiadura handiagoan joateko aukera emango duenez, hori kontrolatzeko sistemak jartzea.

Pasabideak. Oinezkoen bidera iristeko pasabideak jartzea, errepidea ez zeharkatzeko.

Zorua. Gaitzen dituzten bideen zorua eta zabalera egokiak izatea.

Asfaltatzea. Lanak amaitutakoan errepide guztia berriz asfaltatzea.

Konpentsazioak. Jarduera ekonomikoek jasango dituzten kalteak konpentsatzea.